

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroa

2009ko abenduaren 10ean egindako tailerraren akta

Gaiak:

- Foroak 2009an zehar egin duen ibilbidearen ebaluazioa.
- Datorren urteko ekintzak programatu.



Osteguna, 2009ko abenduaren 10ean.

Legazpin, 18:30etik 20:15era

● Tailerrak eman duena, Zertarako?

Gaur, 2009ko abenduaren 10ean (Giza eskubideen Nazioarteko Eguna¹) egin dugun aurtengo azken tailer honetan *ebalatu eta programatu* egin dugu; itxi eta ireki; hona hemen azalpenak:

- Batetik, *Legazpiko Agenda 21eko Foroak 2009. urtean zehar egin duen bidea eta egin duen lana baloratu* nahi izan dugu. Horretarako, positiboki baloratzen ditugun puntuak jaso ditugu baina, batez ere, hobetu beharreko alderdiei erreparatu diegu, erantzun bat eman nahian.
- Bestetik, balorazioaren ondoren eta begiak 2010ean jarrita, *Legazpiko Agenda 21eko Tokiko Ekintza Planeko gaiak edo proiektuak* aztertu ditugu eta elkarrekin zeintzuk landu nahi ditugun lehenetsi dugu.

Baina bete-betean gai horrekin hasi aurretik, bost minutu hartu ditugu *berri on bat* konpartitzeko: *Legazpiko Udalak nota onarekin gainditu du Ekoscaneko laugarren ikuskaritza* (hein handi batean, ingurumena zaintzen duen bulegoko materiala eskuratzen ahalegin handia egin delako); ondorioz, Ekoscan PLUS ziurtagiria jasoko du Udalak. ZORIONAK!!!

● Parte hartzaileak Zeintzuk?

Ohiko aurpegiak ikusi ditugu (ez ahaztu Foroak 9 urte daramatzala martxan! Ez da ez, ahuntzaren gauerdiko eztula!) eta horiekin batera badaude aurpegi berriak ere. Guztira, 19 pertsona bildu gara gaurkoan. Benetan eskertzen dizkizuegu adierazitako iritziak eta egindako ekarpenak; horrela, guztion artean gai izan gara Foroa hobetzeko alderdiak identifikatzeko eta, horrezaz gain, nola hobe daitekeen jaso dugu! **Mila esker guztioi!**

¹ Nazio Batuen Web orrian gaiari buruz datu eta informazio gehiago jaso dezakezue: <http://www.un.org/depts/dhl/spanish/humanrights/>

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Floren Gutierrez ♦ Bixente Garmendia ♦ Jose Luis Cid ♦ Junkal Fernandez ♦ Begoña Santillan (Iratzarri) ♦ Isabel Alfonso (Iratzarri) ♦ Martin Gonzalez Ausin ♦ Ester Agirre ♦ Arantxa Lobo ♦ Jose Ramon Hernandez ♦ Iker Azurmendi ♦ Mari Vallejo ♦ Javier Iraeta (GKN Driveline) ♦ Jone Azpeitia (Udaleko Nekazaritza saileko teknikaria) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Inma Hernandez (Udaleko Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).



● **Eta orain, lanera! Hasteko, 2009an Foroak egin duen lana errepasatuko dugu.**

Lehenbizi Inmak iazko azkeneko bileran 2009. urtean zehar lantzea erabaki genituen gai eta proiektuen laburpena eskaini digu. Ondoren, aurten benetan egin duguna eta gaur egungo egoera zein den azaldu du.

Laburtuz, hona hemen Inmak esandakotik jasotako hainbat datu:

- Gaurko bilerarekin, guztira 10 izan dira Foroak aurten egin dituen bilerak. Egunak, gaiak eta parte-hartzeari dagokionez, hona hemen datuak:

Tailerra	Gai nagusia	Parte-hartzea
1. Tailerra. Urtarrilak 29	Legazpiko mugikortasun iraunkorraren Plana. Obren egoera eta bidegorriaren gaineko debatea.	25 partaide
2. Tailerra. Otsailak 26		29 partaide
3. Tailerra. Martxoak 26	Zaldu eta Pisuzahar eremuetako hirigintzako jarduketa-programa.	34 partaide
4. Tailerra. Apirilak 1	Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana.	23 partaide
5. Tailerra. Apirilak 28	Eskolako Agenda 21aren urteko Foroa.	35 partaide
6. Tailerra. Maiatzak 28	Legazpiko Tokiko Agenda 21eko iraunkortasun-adierazleak.	23 partaide
	Gazte-txokoko eta Gaztetxeko gazteekin elkarlana.	
7. Tailerra. Ekainak 18	Legazpin klima-aldaketaren aurka egiteko plana.	18 partaide
8. Tailerra. Urriak 1	Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa.	14 partaide
9. Tailerra. Azaroak 5	Uraren kudeaketa.	28 partaide
		229 lagun

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Bileretan batezbeste parte hartu dutenen kopurua 25 izan da (ez dago batere gaizki!).
- *Landu diren gaien edo proiektuen egungo egoerari* dagokionez, hainbat datu:

- **Bidegorria:** Proiektatutako "eraztuna" ixteko, Haztegi ikastola parean eta Latxartegi kalean egin beharreko lanak egitea falta da (Laubide auzoan ere zati batzuk geratzen dira....); 5 hilabeteko epean lan horiek bukatuta egotea espero da. Horrezaz gain, bizikletaren erabilera bultzatzeko asmoarekin, Udalak bizikletak aparkatzeko burdinak jartzen jarraitu du.
- **Zaldu-Pisuzahar eremuetako hirigintzako jarduketa-programa:** Proiektuaren tramitazioa (hau da, jarduketa-programaren onarpena) aurrera doa, gai korapilatsua eta egoera ekonomikoa aurkakoa izan arren. Oztopo handiena Urtatzako erreka agerian jartzeak suposatuko duen kostua da baina Udalak lan hori egiteko Eusko Jaurlaritzako Ur zuzendaritzako finantziarioa lortzea espero du. Horrela, makina hondeatzaileak 2011n lanean hasteko moduan egongo lirarteke (gutxi gorabehera).
- **Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana:** Une honetan Metaplan izeneko plana osatzen ari da, merkatu-nitxo berriei buruzko azterketa batekin. Horretarako lantalde bat osatu da eta honako hauek osatzen dute talde hori: Udalak, Ilinti merkatarien elkarteak eta Merkataritzari laguntza teknikorako Kabineteak. Lantaldearen helburua 2010ean garatuko den lan-plana idaztea da.
- **Eskolako Agenda 21:** Aurten herriko ikastetxeetan milurteko helburuak aztertzen ari dira. Eta urtero beraiekin egiten dugun foroaren funtzionamenduari dagokionez, Udala foro hori berregokitu egin behar ote den aztertzen ari da, ea berrantolatuz gero emaitza hobetoagoak lortzen diren.
- **Gazteekin egindako lana (Gazte-txokoa eta Gaztetxea):** Udalaren laguntzarekin Gaztetxeak edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea sustatu du; ekimen hori arrakastatsua izan da eta Legazpin antolatzen diren beste ekintzetara zabalduta da (Korostira egiten den igoera, Kantu afaria, Lakiolako erromeria,...).
- **Legazpin klima-aldaketaren aurka egiteko plana:** Udalak dagoeneko eginda du klima-aldaketaren aurka egiteko plana eta Agenda 21ean integratuko du. Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko beste 5 udalerrirekin egin du (Ithoberen programa pilotu baten barruan). Beraz, aitzindariak gara gai honetan eta Eusko Jaurlaritzak Copenhagueko goi-bileran aurkeztuko du esperientzia hori!
- **Legazpiko natur eta kultur aniztasunaren eta ondarearen inbentarioa:** Inbentario hori egiteko lana Aranzadi elkarteari esleitu dio Udalak. Aipatu elkarteak proposatu duen lan-programan Agenda 21eko Foroaren parte-hartze zehatza jasotzen da. Beraz, bertatik bertara biziko dugu inbentarioa egiteko lanaren garapena eta aurrerapena.
- **"Pisuzko arrazoiak" kanpaina, erosketetarako organ erabilera sustatzeko:** Egindako kalkuluen arabera, erosketak egitean orga erabiltzea erabakitzen dugun bakoitzean (ez ditugu, gutxi gorabehera, plastikozko 6 poltsa erabiltzen) karbono dioxidoaren 15 kiloko isurketa ekiditen dugu. Eta, horrezaz gain, autoa erabiltzen ez badugu, handiagoa da murrizketa hori!

Legazpiko Agenda 21eko Foroa
Urte bat iruditzen



Foro de Agenda 21 de Legazpi
Un año en imágenes

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Aurrera egiten dugu urtean zehar egindako ibilbidearen ebaluazioarekin eta hobetzeko proposamen berrieekin...

2009. urteak eman duena berrikusi ondoren, **Legazpiko Agenda 21eko Foroak egin duen lanaren ebaluazioa egin dugu**. Horretarako, honako dinamika jarraitu dugu: *Pertsona bakoitzak bere iritzia eman digu (alderdi positiboak eta hobetzeko puntuak) honako gaietara buruz:*

1. Landu diren gaiak eta proiektuak
2. Foroan parte hartu duten herritarrak eta agenteak
3. Bilerak egiteko dinamika
4. Bestelako gaiak: deialdia, eskaintako dokumentazioa, informazioa,....



Ondoren hobetzeko gaietan zentratu gara eta nola? galderari erantzuten saiatu gara; hau da, hobetzeko proposamenak eta ideiak. Eta zein da horren emaitza? Ondoren jaso dugu:



1. galdera. Nola baloratzen dituzu 2009an Agenda 21eko Foroan landu diren gaiak eta proiektuak? (alderdi positiboak eta hobetzeko puntuak)

Laburpena: Ideia nagusiak	Banakakoen proposamen guztien aipamena
<p>Alderdi onak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oro har oso ondo baloratu dira landutako gaiak eta proiektuak. • Adostasuna aipatu da puntu positibo gisa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gai denak izan dira interesgarriak. • Ondo, oro har. • Landu diren gaiak eta proiektuak ondo egon dira. • Bidegorria, Eskolako Agenda 21, Gazteekin egindako lana. • Oso ondo dago ikasleekin Agenda 21ean lan egitea. • Adostasuna.
<p>Hobetzeko puntuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Foroan mugikortasun-planari eman zaion tratamendua (Legazpi mailan planaren onarpena eta erabilera gehiago landu behar dela uste dugu). • Legazpiko eguneroko gai gehiago lantzea (garbiketa, berdeguneak,... eta bestelakoak) • Ezin dugu ahaztu bizilagun eta herritar garen heinean gure erantzukizuna ez dela Foroan amaitzen; gure lana eguneroko ekintzetan eta erabakietan islatu behar da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bidegorriak kritika handia. • Legazpiko mugikortasun-plana. • Bidegorria, gutxi erabiltzen da. • Eskoletan bidegorriaren erabilera bultzatu behar da. Jendeak ez du uraren gaia aintzat hartzen. • Legazpiko mugikortasun-plana. • Mugikortasun-planak ez du betetzen herritarrekiko dugun azken asmoa. Kausak: motibazioa?, erraztasunak? kontzientziakzioa?... • Legazpiko herrian interesgarriagoak diren gai gehiago. • Gizartean inplikazio gehiago herria ez zikintzeko orduan (poltsak, paperak,...): kaleak, jolastokiak eta ikastetxeak. • Ez du gaiekin zerikusirik baina pena ematen dit hormigoiak herriko berdegune guztiak jaten dituela ikusteak. • Zaldu-Pisuzahar eremuetako hirigintzako jarduketa-

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Laburpena: Ideia nagusiak	Banakako proposamen guztien aipamena
	<p><i>programa: Harri-lubetarekin joka daitekeen aztertu beharko da, goialdetik pabilioira joan ahal izango den ikusteko.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Indar handiagoa eman behar zaie hemen hartutako erabakiei.</i> • <i>Batzuetan, aztertutako gaiak ahaztu egiten ditugula dirudi. Gure parte-hartzea Foro batean "bukatzeko da".</i> • <i>Ez naiz egon.</i>



2. galdera. Foroaren funtzionamenduari dagokionez, nola baloratzen duzu parte-hartzea? (Alderdi positiboak eta hobetzekoak)

Laburpena: Ideia nagusiak	Banakako proposamen guztien aipamena
<p>Alderdi onak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzea positiboki baloratu da kopuruari, jarraitutasunari eta aniztasunari dagokienez. • Giro ona eta tolerantzia bilera guztietan. 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Kopuruaren aldetik oso ondo dagoela iruditzen zait.</i> • <i>Oso ondo.</i> • <i>Jendetsua eta bizia, parte-hartze handia. Adin-tarte zabala.</i> • <i>Gora egin du.</i> • <i>Jende eta ideologia desberdinak. Tolerantzia.</i> • <i>Onargarria baina parte-hartze handiagoa hobe.</i> • <i>Oso konstantea.</i> • <i>Parte-hartzea jarraitua da eta ondo dago parte-hartzaileen kopuruari dagokionez.</i>
<p>Hobetzeko puntuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gazteekin elkarlana sustatzea eta haien parte-hartze handiagoa lortzea. • Pertsona nagusiak eta/edo haien kolektiboak gehiago inplikatzeko. • Forora puntualki datozen pertsonen fideltasuna lortzea, norberaren interesak alde batera utziz. • Foroan egiten duguna gehiago eta hobeto komunikatzea. • Ordua edo eguna? 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Gazteak erakarri beharko lirakeke, zaila izango den arren.</i> • <i>Gazteek ez dute parte hartzen beraiekin zuzenean lan egiten ez bada?</i> • <i>Talderen baten parte-hartzea falta da (Gaztetxea,...)</i> • <i>Gazteekin saioaren bat egin den arren, gazteek Foroan parte hartu gabe jarraitzen dute.</i> • <i>Gazteria falta da.</i> • <i>Gazteak erakarri behar ditugu.</i> • <i>Ohi denez, gazteen parte-hartzea falta da.</i> • <i>Nagusien elkarteak inplikatu behar dira Agenda 21ean.</i> • <i>Irregularra. Parte-hartzea sustatu, nola?</i> • <i>Hobetu daiteke eta jende gehiago etorri.</i> • <i>Gai zehatz bat aztertzeke behin bakarrik datozen pertsonak berriro etor daitezela lortu.</i> • <i>Foroan egiten denaren berri eman behar dugu.</i> • <i>Parte-hartzaileak gaian interesatuta daudelako etor daitezela lortu behar dugu baina ez "haien interesak" defendatzera.</i> • <i>Asteko eguna eta ordua egokiak diren aztertu.</i> • <i>Bizikleta gehiago erabil dezaten herritarrak mentalizatzen jarraitzeko hainbat jarduketara</i>

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Laburpena: Ideia nagusiak	Banakakoen proposamen guztien aipamena
	aztertzea geratzen zaigu.



3. galdera. Foroaren funtzionamenduari dagokionez, nola baloratzen duzu bileretako dinamika? (Alderdi positiboak eta hobetzekoak)

Laburpena: Ideia nagusiak	Banakakoen proposamen guztien aipamena
<p>Alderdi onak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Dinamika ona da, bizia. Bilerak ondo antolatuta daude eta biziak dira. 	<ul style="list-style-type: none"> Bilerak oso ondo antolatuta daude eta parte-hartzaileak dira. Bizia, erabakiak gauzatu egiten dira. Oso interesgarria iruditu zitzaidan Zaldu eta Pisuzahar eremuetako hirigintzako jarduketa-programaren gaineko tailerrean erabili zen dinamika. Dinamika bera erabili beharko litzateke Udalak bultzatuko dituen beste proiektuetan. Oso ona da. Norabide onean ari garela lanean uste dut.
<p>Hobetzeko puntuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Taldearen sormena eta dinamika sustatzea, aurrera egiteko ideia desberdinak eta berriak sor daitezten. 	<ul style="list-style-type: none"> Idea-jasa gehiago falta da. Batzuetan trabatuta geratzen gara gai batean eta kostatu egiten zaigu aurrera egitea; hori gertatu zaigu bidegorriaren gaiarekin. Aurrera egin behar dugu, birziklatzeko material desberdinekin jardutea bilatuz. Urtean zehar eragitea bilatu behar dugu. Bilerak dinamikoagoak izan beharko lirateke. Galderak? Erantzunak garbi.



4.galdera. Foroaren funtzionamenduari dagokionez, nola baloratzen dituzu bestelako gaiak (deialdia, dokumentazioa...)? (Alderdi positiboak eta hobetzekoak)

Laburpena: Ideia nagusiak	Banakakoen proposamen guztien aipamena
<p>Alderdi onak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Eskaintzen den informazioa eta dokumentazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa eta deialdia ondo daude. Informazio ona iruditzen zait. Oro har, ondo dago. Niri informazio egokia ematen dela iruditzen zait.
<p>Hobetzeko puntuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Bilera hauen "mamia" eta oinarria hobeto transmititzea (zertarako den Foroa, zer egiten dugun eta nola,...) 	<ul style="list-style-type: none"> Jendea "harrapatzen" jakin behar dugu. Nola? Ez dugu bilera hauen funtsa transmititzen.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Eta iritzi horien ondoren, **ze proposamen bururatzen zaizkigu hobetzeko alderdiak "iraultzeko"?** Guztion artean hainbat proposamen bildu ditugu. Ikus ditzagun!

<i>Antzemandako beharrak</i>	Hobetu beharreko alderdiei erantzuteko proposamenak eta ideiak Erronka berriak 2010erako!
<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzea hobetzea eta pertsona eta talde berriak erakartzea (gazteak, Forora behin etorri direnen fideltasuna lortzea (...)) 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Egiatzapen batetik abiatzen gara: bilera bakoitzeko 25 pertsonen parte-hartzea izatea, oso ondo dago! Beraz, ez da gure asmoa izan behar gehiegi haztea edo denek hemen egotea, funtzionamendua ere ahuldu egin daitekeelako.</i> <i>Gazteei dagokienez, haien guneetara hurbildu behar dugu, haien adineko pertsonekin, baina Legazpiko beste guneetan ere parte hartzera gonbidatu behar ditugu (adibidez, Tokiko Agenda 21eko Foroa).</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bilera hauen "mamia" eta oinarria hobeto transmititzea (zertarako den Foroa, zer egiten dugun eta nola,...), jende gehiago erakartzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Gehiago eta hobeto komunikatu behar dugu Foroa zer den (bere helburua, izaera, zer egiten dugun,...); horrezaz gain, lortutakoaren berri eman behar dugu. Nola?</i> <ul style="list-style-type: none"> <i>Saio bat graba daiteke eta Urola Telebistan eman. (Animatuko gara!)</i> <i>Foroari buruzko erakusketa bat egin: aurreratutako lanak, lortutako gauzak,...</i> <i>"Ate irekiko" tailerra antola daiteke. Pil-pilean dagoen gaia azter daiteke ohi baino bilera motzagoa antolatuz eta animatuko diren guztiekin gaia landuz.</i> <i>Gure bileretako bat kalean egin daiteke.</i>
<ul style="list-style-type: none"> Taldearen sormena eta dinamika sustatzea, aurrera egiteko ideia desberdinak eta berriak sor daitezten. 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Sistema berriren bat ezar daiteke (teknologia berrien laguntzarekin) bilerak hasi aurretik eta ondoren, giro egokia sortzeko (adibidez, bilerak aurretik hausnarketa sustatuko duten galderak eginez) eta tailerra egin ondoren proposamen berriak jasotzeko. Helburua sormena sustatzea izango litzateke, naturaltasuna eta freskotasuna galdu gabe.</i>

A zer nolako erronka 2010erako! Proposamen berriak eta freskoak dira eta seguru gaude gure ibilbidean urrats bat gehiago ematea ahalbidetuko digutela. Ibilbidearen 9 urte bete ondoren, beharrezkoa dela eta horretarako gai garelara pentsatzen dugu!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● **Eta bukatzeko** 2010ean Foroan landuko diren gaiak eta proiektuak lehenetsi ditugu.

Legazpiko Udalak (Agenda 21eko Tokiko III. Ekintza-planean jasotako edukien eta konpromisoen arabera) lehenetsi dituen proiektuetatik, zeintzuk nahi ditugu datorren urteko Foroan aztertu?

Lehenengo iritzia besterik ez da eta, beraz urtean zehar sor daitezkeen behar eta eskari berrien arabera aldatu egin daiteke. Hori aintzat hartuta, hona hemen gure proposamena! Pertsona bakoitzak 6 pegatina jarri ditu aztertu ditugun proiektuetan eta hauxe da emaitza...



Udalak 2010erako programatu dituen Legazpiko Agenda 21eko Ekintza-planeko proiektuak	Foroko kideen botoak	Lehenetsita ko 7 proiektuak? Ordenan
3.1.1. "JAKIN": kontsumitzaileak jakin dezala. "NAHI": kontsumitzaileak nahi izatea. "AHAL": kontsumitzaileak ahal izatea (2009ko jarraipena).		
3.1.2. Herriko dendarekin egin den produktu ekologikoen gaineko ikastaroaren emaitza: Legazpin ingurumenean eragin gutxi duten produktuen eskaintza sustatzeko plana eta horren jarraipena.	●●●●●●●● (8)	4
3.1.3.		
2.1.11. Sentsibilizazio-ekintzak leku batetik bestera ibiltzeko ohiturak alda daitezen (2009ko jarraipena)	●●●●● (5)	5
8.4.1. Agenda 21eko III. Ekintza-planean gazteriaren parte hartzea eta inplikazioa bilatzea (2009ko jarraipena)	●●●●●●●●● (9)	3
1.2.1. Legazpiko natur eta kultur ondarearen inbentarioa egin.	●●●●●●●● (8)	4
2.1.4. Autobus zerbitzua eskaini herri barruko joan-etorriak errazteko.	(0)	
2.1.9. Oinezkoen joan-etorria erraztuko duten igogailuak ezarri.	●●●● (4)	
2.1.13. Espaloiak zabaltu: Meazti inguruan.	●●●●● (5)	5
2.1.17. Bizikletaren erabilera sustatu, alde batetik bestera joateko (2009ko jarraipena)	●●● (3)	
2.4.2. Kanpaina, isurketen inbentarioaren emaitzen berri emateko.	●●●● (4)	
2.4.3. Stop CO ₂ Euskadi kanpainara atxikitzea.		
2.5.4. Herritarrei informazioa eskaini, euren etxebizitzetan energia berriztagarrien instalazioak jar ditzaten.		
2.5.7. Etxebizitzetan kondentsazio-galdaren erabilerrari eta kostu-eraginkortasunari buruzko informazioa zabaltu.	●●●●●●●●●●●●●●●● (17)	1
2.5.8.		
8.2.1. Igogailuetan maiztasun-erregulagailuen erabilera sustatu.		

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Udalak 2010erako programatu dituen Legazpiko Agenda 21eko Ekintza-planeko proiektuak		Foroko kideen botoak	Lehenetsita ko 7 proiektuak? Ordenan
	Eguzki-energiaren instalazioetarako ezarrita dauden tasetan hobariak sustatu.		
3.2.3.	Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari eta/edo tokikoari laguntza eskaini, salmentarako doako guneak utziz.	●●●●●●●●●● (10)	2
8.1.5.	Udalaren ekintza eredugarriari buruz herritarrei eskaintzen zaien informazioa hobetu: energia-eraginkortasuna ekipoak erostean (fotokopiagailuak, lanparak,...), kontsumo txikiko lanparak, balasto elektronikoak lanpara fluoreszentearentzako,...	● (1)	
5.1.2.	Urtero Foroa biltzeko deialdia egin, ikasleen eskariei erantzuteko.	●●● (3)	

Emaitza zehatz-mehatz aztertuz gero, anitza dela ikus dezakegu; informazioa emateko eta sentsibilizatzeko ekintzak, burutzeko diren bestelako ekintzekin konbinatzen dira ("obrak", lehen sektorea sustatzeko ekintzak,...). Aldez aurretik, gure bidea egiteko konbinazio ona dela dirudi!

● Horrekin guztiarekin... agur esaten dugu 2010era arte.

Eta hiru mezu eman ez esaten dugu agur:

- Hasteko, **eskerrik asko** esan nahi dizuegu, igaro den urtean ere Legazpiko Agenda 21eko Foro honetan bidelagun izan zaituztegunelako. Zuek gabe eta zuen laguntzarik gabe, gogorik gabe, ilusiorik gabe eta baita haserrealdirik gabe ez ginatekeelako honaino iritsiko.
- **Horrezaz gain, 2010ean Foro gisa jauzi kualitatiboa emateko konpromisoa hartzen dugu.** Gune sendoa izatea lortu dugu eta aurrera begira gure erronka lan egiteko moduak berritzea, pertsona berriak erakartzea, egiten dugunaren berri ematea,... izango da eta horretarako ez zaizkigu ideiak falta. Beraz, dotore jarriko gara telebistan agertzeko!
- Eta azkenik, 2009ak oraindik eskaintzeko duenaz goza dezazuen opa nahi dizuegu. Horrela, urte berria indarberrituta eta Legazpi hobetzeko elkarlanean jarraitzeko asmoarekin hartuko dugu.



Ongi bizi eta eskerrik asko guztioi!
Urte berrira arte, zaindu eta une oro gozatu!!!